

"LA CAIXA" ERAKUNDEAREN BEKAK, 2017. **DEIALDIKOAK, ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAN** **DOKTOREGO IKASKETAK EGITEKO**

Deialdiaren ezaugarriak:

"La Caixa" Gizarte Ekintzak **20 beka** eskainiko ditu, jakintza arlo guztietara irekita, doktorego tesiaren irakurketarekin amaituko diren doktorego ikasketak ofizialak egiteko.

Hauta daitezkeen doktorego programek Europako Unibertsitate Eremura egokituta eta doktorego ikasketak ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak araututa egon behar dute.

Upv/EHUko eskaintza ondoko estekan dago kontsultagai:

<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikasle-berriak>

Beken ezaugarriak:

- Guztira, diru kopurua 115.000 eurokoa izango da, 36.000 euro hiru urtetan banatuta, eta 7.500 euroko saria laugarren urtean, baldin eta bekadunak tesia bekaren hirugarren urtea bukatu eta hurrengo 6 hilabeteetan aurkezten badu.
- Beken gehienezko iraupena hiru urtekoa da, urtez urte luza daitezkeenak.
- Bekadunek 2017ko irail eta urri bitartean egon beharko dute helburuko unibertsitateetan.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Espainiako nazionalitatea izatea.
- Goi mailako titulua izatea, **2012ko urtarril eta 2017ko ekain bitartean lortua**, indarreko legediaren arabera doktorego programa ofizial bat egiteko gaitzen duena.
- Lehenago doktore titulua lortu ez izana edo orain doktore titulua lortzeko egoeran izatea.
- Ingeles jakintza egiaztatzea, deialdiko oinarrietan onartutako ziurtagirietako bat aurkeztuta.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epea **2017ko otsailaren 28eko 14:00etan** anaituko da (penintsulako ordua).

Eskaera nola egin:

Eskaera **internet** bidez egin beharko dute eskatzaileek, horretarako dagoen aplikazioaren bidez:

<https://www.becaslacaixa.org/index.aspx>

UPV/EHU n bete beharreko prozedura:

UPV/EHUK **bakarrik** egingo ditu kontratuak UPV/EHUko doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin. Eskatzaileen eginbeharra da beren zuzendariak baldintza hori betetzen dutela ziurtatzea. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke:

<http://www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikasle-berriak>

Ildo beretik, UPV/EHUK bakarrik egingo ditu kontratuak unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin.

UPV/EHUri atxiki nahi duten eskatzaileek halaxe adierazi beharko dute **eskaera aurkeztean**, eta eskaera behar bezala beteta bidali beharko dute helbide honetara, mezuaren gaian "La Caixa bekak" jarrita: pre-postdoc.dgi@ehu.eus. Era berean, adierazi beharko dute zein ikertalderi atxiki nahi duten eta nor den proposatutako tesiaren zuzendaria.

La Caixa Fundazioaren kontaktua:

Helbide elektronikoa: becas@fundacionlacaixa.org

UPV/EHUren kontaktua:

Helbide elektronikoa: pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Telefonoa: 94 601 8008

Informazio gehiago:

<https://obrasociallacaixa.org/es/educacion-becas/becas-de-posgrado/doctorado-en-universidades-espanolas/descripcion-del-programa>